



OROITIDAZKIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

OROI IDAZKIA



Non gauden

Tomas Zumarraga Dohatsuaren
kalea, 71-3 - 01008 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 016 230 - Faxa. 945 016 231

Posta elektronikoko helbideak

Orokorra:

avpd@avpd.es

Euskadiko Datuak Babesteko

Erregistroa:

registro.ficheros@avpd.es

Eskubideen babesa:

tutela.derechos@avpd.es

Idazkaritza Nagusia:

secretaria.general@avpd.es


Web helbidea:

www.avpd.es



Nola heldu

- DBEBren egoitza Apaizgaitegi zaharraren mendebaldeko hegalean dago, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalearen amaieran.
- Eraikin berean daude Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren egoitza, EJIEn zenbait zerbitzurena eta IZENPERena (Euskal Administrazioen Egiatzapen Erakundea).
- Gasteizko hegoaldetik sartzeko (Burgostik), Mediterraneoaren hiribidetik hirigunera desbideratzeko bidea hartu behar da.
- Iparraldeko eta ekialdeko sarreretatik (Bilbotik, Donostiatik edo Iruñetik) heltzeko, Euskal Herria bulebarra hartu behar da, Zabalgana hiribidetik segitu, eta hurrengo bi biribilguneetan ezkerretara biratu ondoren, alboko bidetik, atzerantz eginez, Gasteizko hirigunerantz jo behar da.



Nor gara

Herritarren pribatutasuna babesten duen euskal erakundea gara, eta, horretarako, kontrolatzen dugu euskal erakunde publikoek datu-babesari buruzko legea betez kudeatzen dutela herritarren gaineko informazioa.



• Zuzendaria eta DBEBko taldea

Zer egiten dugun

herritarrei arlo honetan dauzkaten eskubideei buruzko **informazioa ematen diegu**, eta eskubide horiek betetzen ez badira, babestu ere egiten ditugu

administrazio publikoetan **ikuskapenak egiten ditugu eta arau-hauste espedienteak ireki**

datu pertsonalen tratamenduei **publikotasuna ematen diegu**, erregistroan inskribatuz

datu pertsonalen babesaren tratamenduen arloan **jardunbide egokiak sustatzen eta zabaltzen ditugu eta administrazio publikoetan aldatzeko proiektuak bultzatzen ditugu**

administrazio publikoei **aholkularitza ematen diegu**

2011ko Jardueren Oroitidazkia

Eskuartearen duzun Oroitidazkia Bulegoaren 2011ko Jardueren Azalpenaren laburpena da.

Oroitidazkiaren eta Jardueren Azalpenaren helburua da administrazio publikoei eta herritarrei azaltzea zer garen eta zer egiten dugun. Dokumentu biak daude eskuragarri Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orrian (www.avpd.es).

Aurkibidea

- Aurkezpena
 - Kontseilu Aholku-emailea
 - Aholkularitza eginkizuna
 - Kontrol eginkizuna
 - Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa
 - Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako fitxategien arduradunen iritzia iruzkia buruzko azterketa soziologikoa
 - Pribatutasunaren kontzeptuaren zabalkundea
 - Jardunbide Egokien Programa Administrazio Publikoetan
 - Erakunde Bilerak
 - Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren parte hartzea nazioarteko foroetan
 - Datu pertsonalen babesaren arloko hitzaldietan, mintegietan eta prestakuntzari buruzko bestelako jardueretan parte hartzea
 - Bikaintasunarekin konpromisoa
 - Letrak eta Datu Pertsonalen Babesa
-

Aurkezpena



Egun bizi dugun baldintza sozial eta ekonomikoen aldaketa sakona administrazioarentzat ere erronka bat da. Esparru publikoa une erabakigarria igarotzen ari da, egoera berrira egokitze aldaketa garrantzitsuak egin behar dituelarik. Herritarrok zerbitzu publiko azkarragoak, eraginkorragoak eta gardenagoak eskatzen ditugu, eta administratzaileok direnak eta ez direnak egin behar ditugu eskaera hori eta oinarritzko eskubideen bermea zorrotz uztartzeko. DBEBri dagokio azkartasuna, eraginkortasuna eta gardentasuna datu pertsonalak babesteko, pribatutasunerako eta intimitaterako eskubideekin uztartzea. Oroitidazki hau, aurreko urteetan bezala, 2011ko Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Jarduerak izeneko dokumentuaren laburpena da. Jardueren dokumentua gure web gunean dago ikusgai, eta esan behar da 2009-2011

Plan Estrategikoa amaitzearekin batera egitea egokitu zaigula. Bestalde, esan behar da Plan Estrategikoan zehaztu zela DBEBren misioa: “Herritarren pribatutasuna babesteko independentzia osoz jarduten duen euskal erakundea gara, eta, horrela izan dadin, kontrolatzen dugu euskal erakunde publikoek datu-babesari buruzko legea betez kudeatzen dutela herritarren gaineko informazioa”. Azken urte honetan helburu horri begira lan egin dugu, ondoko ezaugarriak dituen gizartea sendotzen laguntzeko: herritarrek badakite zein eskubide dituzten, ulertzen dute nola erabiltzen duten haien informazio pertsonala eta lasai eta seguru daude informazioaren erabilera dela eta. Bestalde, administrazioek konfiantza sortu behar dute herritarrengan datu pertsonalak tratatzen dituztenean; eta pertsonen eskubide guztiak errespetatu behar dituzte —gardentasuna, informazio publikoaren atzipena, segurtasuna, informazioa eta datu pertsonalen babesa— eta egoera kontuan hartuta baloratu behar dituzte. Gure jardueraren abiapuntua da, hasteko, jakitea zein den gure eragin-esparruaren benetako egoera; eta, horregatik, dira hain garrantzitsuak herritarren eta fitxategien arduradunen

Aurkezpena

pertzeptzioari buruzko azterketa soziologikoak; izan ere, horien bitartez antzeman baititzakegu datu babesaren arloko iritzi eta premiak. Horien berri izanez gero, hobeto burutu dezakegu lan proaktiboa, pribatutasunaren kontzeptua hedatuz, eta, horretarako, euskal administrazio publikoekin eta bestelako zenbait erakunderekin lankidetzak jardunbide onak finkatuz, esperientziak eta baliabideak partekatzeke. Xede hori erdiesteko agertzen da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa komunikabideetan eta egiten ditu aliantza estrategikoak. Eginkizun aholku-emaileak eta kontrol eginkizunak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zeregín garrantzitsuak dira. Euskal erakundeei titulartasun publikoko datuen gainean eman zaien aholkularitzaren esparruan agerian geratu da bereziki kezkatzen duen gaia dela administrazio publikoen arteko eta administrazio bereko sailen arteko datu lagatzeak edo komunikazioak edo administrazioek hirugarrenei egiten dizkietenak. Bestalde, osasun datuen erabilera,

kontrol eta parte hartze politikorako datu lagatzeak edo eroldako datuen erabilera izan dira landu diren gai azpimarragarrienak. Xedapen orokorreari buruzko txostenak eta herritarren eskubideen babesak ere agerian uzten dute eskubide hau babesteko premiaren inguruan gero eta kontzientziazio handiagoa dagoela eta eskubidea gero eta hobeto ezagutzen dela. Alderdi formaletik begiratuta, Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan egindako inskripzioak ere gure lanaren zati handi bat izan dira, hemen adierazten denez. Izan ere, 2011ko abenduaren 31n Erregistroan 7.219 fitxategi genituen erregistratuta, eta horrek esan nahi du iaztik % 13,8ko hazkundea izan duela. Inskripzioen, aldaketen eta ezabatzeen esparruan Erregistroan izan diren mugimenduak ere % 10,3 hasi dira iaztik, eta 1.826 mugimendu egon dira. Bestalde, aipamen berezia merezi du kalitaterekin dugun konpromisoak, eta datuak babesteko oinarritzko eskubidea benetan gauzatzeko zerbitzu publikoa emateko

lan egiten duen pertsona taldea sendotzeko dugunak. Horren adierazgarri dira EUSKALITEk 2011ko abenduan Bulegoari eman zion Bikaintasunarekiko Konpromiso Diploma eta Bulegoko langile guztiei aitortzen dieran esker ona egin duten ahaleginagatik eta agertu duten profesionaltasunagatik. Konpromiso horren oinarrian uste sendo bat dago, hau da, zein eskubide ditugun jakinez gero, herritar aktiboak, kontzienteak eta arduratsuak izango gara, eta geure buruari administrazioek gure alde zer egiten duen galdetzen ibiltzeaz gain, geuk ere gizartearen alde zer egin dezakegun galde diezaiokegula. Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet hainbat gai ebazteko edo hainbat proiektu elkarrekin partekatzeke guregan uste osoa duten pertsonen eta administrazioen. Lanean segituko dugu gureganako konfiantza sendotzeko egunez egun. Hala egin behar dugu, zerbitzuarekiko konpromisoak bultzatuta.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria

Kontseilu
Aholku-emailea

- Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14., 16. eta 17. artikuluek xedatzen duenez, Datuak Babesteko Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari aholkua ematen dion gobernu organoa da. Bertan daude ordezkaturak Eusko Legebiltzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Euskadiko lurralde historikoak eta euskal toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.



• Ezkerretik eskuinera, Javier Aguirre, Iñaki Vicuña, Eduardo Jacob, Montserrat Auzmendi, Nieves Martínez de Antoñana, Iñaki Pariente de Prada, Ricardo Ituarte eta Iñaki Esparza.

- Hona hemen Kontseilu Aholku-emaileko kideak 2011ko abenduaren 31n, 2/2004 Legearen 16. artikuluaaren arabera:

Iñaki Esparza Leibar jauna	<i>Lehendakaria: Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Oinarrizko eskubideen esparrua. Euskal Herriko Unibertsitatea</i>
Montserrat Auzmendi del Solar andrea	<i>Legebiltzarreko legelari nagusia</i>
José Ignacio Pariente de Prada jauna	<i>Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendaria</i>
Javier Aguirre Busteros jauna	<i>Arabako Foru Aldundiko Informatika Zerbitzuaren burua</i>
Ricardo Ituarte Aspiazu jauna	<i>Santurtzikiko Udalerriko alkatea</i>
Eduardo Jacob Taquet jauna	<i>Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Informatikaren arloa. Euskal Herriko Unibertsitatea</i>
Iñaki Vicuña de Nicolás jauna	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria</i>
Nieves Martínez De Antoñana andrea	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia</i>

- Kontseilu Aholku-emailearen lehendakaritza sistema txandakakoa da, eta bi urtean behin aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketa eta Funtzionamendu Arauetako 4.1 artikulua xedatzen duen hurrenkeran.

- Apirilera arte, Eduardo Jacob Taquet jauna izan zen lehendakaria; eta gero, Iñaki Esparza Leibar jauna, biak Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak.

- Kontseilu Aholku-emaileak hiru ohiko bilera izan ditu: apirilaren 7an, irailaren 26an eta abenduaren 19an.

Zantzu onak bidegrabazioetarako. Garai hobeak datu pertsonalen babeserako

Iñaki Esparza Leibar jauna

*DBEBren Kontseilu Aholku-emailearen lehendakaria
EHUko Zuzenbide Prozesaleko katedraduna*

Uste dugu bizi garen une hau ezin aproposagoa dela begirada bat zuzentzeko irudien grabazioaren munduari, bai eta irudien erabilerei ere, pertsonen, pertsona bakoitzaren pribatutasunaren eta intimitatearen babesaren berariazko ikuspegitik abiatuta; hau da, datu pertsonalen babesaren ikuspegitik abiatuta; azken finean, grabazioen bidez eskuratzen diren irudiak datu pertsonalak baitira.

Goiko adierazpen hori gertaera ukaezin batean, ekimen itxaropentsu batean eta ebazpen jurisdikzional batean oinarritzen dugu. Hiru alderdiok dute eragina, ikuspegi desberdinetatik begiratuta bada ere, aztertzea interesatzen zaigun testuinguruan. Gertaera ukaezinari dagokionean, irudiak grabatzeko gailuen kontrolik gabeko ezarpenaren zabalkundea -progresio geometrikoan egiten dena- egiaztatu izanaz ari gara. Era askotako gailuak daude, eta oso zehatzak izateko asmorik ez dugun arren, honakoak aipa ditzakegu besteak beste: gailu finkoak, mugikorrak, ezkutukoak, agerikoak edo erdi agerikoak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak, legalak, alegalak eta ilegalak.

Benetan gertatzen dena da monitorizatuta gaudela, oso monitorizatuta; eta, sarri gaizki monitarizatuta; ezen jarduera hau ezin baita edonola gauzatu, ezin baitu edonork burutu, eta sorkuntzak ezin du izan muga bakarra. Lortutako irudiak datu pertsonalak dira -hain zuzen ere, gure irudiak direlako, alde batera utzita gerora egon daitezkeen ondorioak, esate baterako, ondorio prozesal garrantzizkoak-, eta datu pertsonalak direlako, tratamendu berezitu bat izan behar dute, beste edozein aukera berariaz baztertu behar delarik. Alderdi horri dagokionez, badira zenbait esparru zabal (esate baterako, segurtasun pribatuarena) erregulazio zehatz eta doiaren faltan daudenak eta beharra dutenak.

Ekimen itxaropentsuari dagokionean, aipatu nahi duguna da oraintsu Europako Batzordeak erregelamendu bat (berez Ministroen Batzordeak eta Europako Parlamentuak onartu beharko lukete) prestatzeko izan duen ekimen bat -oso interesgarria izan daitekeena-, eta erregelamendu horrek emango lieke herritarrei

haien datu pertsonalak ezabatzeko eskatu ahal izateko eskubidea. Zalantzarik gabe, datu pertsonalen babesaren sendotzea da helburua, eta ahalik eta modurik homogeneousan egitea Europako lurralde esparru osoan. Herritarrek beraiei buruzko informazioa modu eraginkorrean kontrolatzeko duten gero eta premia handiagoa da ekimen honen sorburua. Azken finean, aurrez aurre jartzen da “ahantzura eskubidea”, aspalditik aldarrikatzen den babes sistema baten gailur gisa, eta gogoeta ausarta, eta, ondorioz, adoretu jardutea eskatzen duen gaia izaki. Litekeena da ekimenak ez erdiestea golpe batean lortu nahi lituzkeen jomuga guztiak, beste eskubide eta interes legitimo batzuk ere badirelako —nahiz eta garrantzi gutxiagokoak izan— ponderatu behar direnak bidezko oreka lortu nahi bada. Edozelan ere, ekimenak —oraindik orain hastapenetan badago ere— datu-babesaren kultura sendotzen du, eta argudio eta tresna osagarriak ematen dizkie datuak babesteko ardura duten agintariei gero eta izate-arrazoi sendoagoa dituzten helburuak lortzeko.

Azkenik, lehen aipatu dugun ebazpen jurisdikzionalari dagokionean, esan behar dugu Espainiako Konstituzio Auzitegiak berriki, 2012ko urtarrilaren 30ean emandako epaiaz ari garela. Epaia ezkutuko kameran erabilerari buruzko ebazpen zehatza ematen du, eta guretzat ezkutuko kamerak bidegrabazioaren aldaera bat baino ez badira ere —orain arte disziplinatuta gabea—, baina datu pertsonalen babesari dagokionez, garrantzi handiko ondorioak dituena. Ebazpenak zenbait oinarri eta printzipio interesgarri ezartzen ditu, orokorrean aplikatzeko bideokameren esparruko jardueraren arloan.

Konstituzio Auzitegiaren epaiaren txostengilea Adela Asua Batarrita magistratua izan da (Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbideko katedraduna, 2011n Konstituzio Auzitegiko kide egin zen arte), eta bertan benetako informazioa komunikatzeko eskubidearen eta intimitate pertsonalerako era norbere irudirako eskubideen arteko bateragarritasuna aztertu ditu.

Magistratuek azpimarratu dute halakoetan, hau da, “esku hartze ez-legitimoak egonez gero”, bizitza pribatu “babesgarria” zein gertarik kaltetzen duten ebazteko, kontuan hartu beharreko irizpide bat dela pertsonak berak edo beste edozeinek egoera berean duen zentzuzko itxaropena pentsatzeko ondo babestuta dagoela

inoren begiradapetik edo miaketa zorrotzetik; eta, hori berresteko, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) jurisprudentzia aipatzen du.

“Gogora ekarri behar da -baieztatzen du epaiak gogoeta juridiko batean— intimitate pertsonalerako eskubidea, norbere irudirako eskubidea eta ohorerako eskubidea ere (azken hori ere Konstituzioaren manu berak aitortzen baitu) gure ordenamenduan jasota daudela eduki propioarekin eta ez daudela bata bestearen menpean (martxoaren 26ko 81/2001 KAE, 2. gogoeta juridikoa eta uztailaren 2ko 156/2001 KAE, 3. gogoeta juridikoa). Horregatik, informazioa antzemateko edo aurkezteko era jakin berak intimitaterako eskubidean esku hartze ez legitimoa egin dezake, eta norbere irudirako eskubidea ere urra dezake eta ohorerako eskubidea kaltetu dezake aldi berean, baina, gerta daiteke eskubide horietako bat edo beste bakarrik kaltetzea. Gauzak horrela, kasu honetan portaeraren dimentsio kaltegarria intimitaterako eskubidearen eta norbere irudirako eskubidearen aurka azaleratu da, eta ez da zalantzan jarri ohorerako eskubidea kaltetu zitekeenik. Beraz, hemen garrantzia duen alderdia ez da antzemandako informazioaren edukia zentzu hertsian, baizik eta informazioa nola eskuratu den ezkutuko bideograbazioen bidez, eta non egin zen bideograbazioa, profesional baten kontsultako zoko gordean”.

Ateratzen dugun ondorioa da datu-babesaren betekizunak betetzen ez dituzten irudi tratamenduak “ezkutuko bideograbazioak” bezalakoak direla; eta, beraz, errotik urratzen dituztela, gutxienez, intimitaterako eta norbere irudirako eskubideak, eta, horren eraginez, -azken ondorioa—, ez dute baliorik izango balizko prozesu batean (askotan horixe izaten baita grabazioen xedea), alde batera utzita irudien ez-legezko grabazioen eta irudien geroko tratamendu ezaren edo tratamendu okerren ondoriozko erantzukizuna, pertsona juridikoei dagokiena barne.

Beraz, aurrean dugun ikuspegiak erakusten digu egun bideograbazio mota bi daudela: bata, ondo egiten dena da, aparailuak eta sistemak behar bezala instalatuz, eskuratutako datuak modu egokian tratatuz eta herritarren eskubideak modu arduratsuan bermatuz, eta, behar izanez gero, ustezko errugabetasunaren aurka erabiltzeko moduko materiala izango litzateke. Bestea, hain multzo ugaria denez, “ezkutuko bideograbazioa” izenez deituko dugu. Halako grabazioek ez dute lehenengo multzokoen baldintza bat bera ere betetzen, eta, beraz, baliogabeak izan ohi dira ondorio guztietarako; eta, aldi berean, erantzukizun iturri ere izan ohi dira, herritarren zenbait oinarritzko eskubide urratzen dituztelako.

Legegileari dagokio, berak baitu monopolioa, bideograbazioen esparru luze-zabala mugatzea eta osotasunean arautzea, behar

diren xehetasun guztiekin, hain garrantzitsuak izanik ukitutako eskubideak. Zantzuak eta estimuluak argiak dira, eta esparru honetan ere hobe da berandu sekula ez baino.

Datuak Babesteko agentzien eta agintaritzen zereginak dira, eta gure esparruan batez ere AVPD-DBEBk du ardura hori, arriskuan dagoena geure intimitatea eta pribatutasunaren zati bat dela ikusteko gai den kultura bat sortzea, informazio argia eta zehatza ematea, gaiari buruzko jardunbide egokiak sortzea eta, ohartarazpenak egitea, ikuskapenak egitea, eta, hala badagokio, funtsezko alderdiak urratzen dituzten portaerak zehaztea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eginkizun horiek denak gauzatzen ari da modu planifikatuan, progresiboan, zorrotzean eta arduratsuan; hau da, burutsu ari da, eta horren adierazgarria da aurten ere oroitidazki hau.




Aholkularitza eginkizuna

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz egiten dizkioten galderei erantzun behar die. Era berean, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egin behar ditu.

Irizpenak

- DBEBk jasotzen dituen kontsultei egiten zaizkien idatzizko erantzunak dira eta helburua da aholkularitza formala ematea.
- Datu pertsonalen babesaren inguruko gai jakin baten inguruan galderak egiten dituzten administrazioak eta pertsona pribatu, fisiko edo juridikoak dira irizpenen hartzaile zuzenak.
- 2011ko irizpen esanguratsuenak honako gaiei buruzkoak dira oro har:
 - Datuen kalitatea
 - Hirigintza datuak, udalekoak, osasunekoak, laneakoak eta abar lagatzea.
 - Kontrol politikoa
 - Informatzeko betebeharra
 - Atzipen eskubidea
 - Legearen esparrutik kanpoko fitxategiak
 - Errola
 - Kalitatearen eta adostasunaren printzipioa
 - Datuen argitarapena
 - Gizarte zerbitzuak
 - Etxeko tratamenduak



Aholkularitza eginkizuna

Txostenak

- Otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egiten ditugu.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko txostenak egiten ditugu.
- Bestelako lege-xedapenen gaineko txostenak ere egiten ditugu, baldin eta horien edukiak datu pertsonalen babesarekin zerikusia badute.
- 2011n honako arau-proiektuen gaineko txostenak egin genituen:

Kirolean dopinaren aurkako legearen aurreproiektua.

Euskadin Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeako Legearen aurreproiektua.

Gaztediari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua.

Kargu publikoaren Portaera Kodea arautzen duen legearen aurreproiektua.

- Era berean honako arau proiektuen gaineko txostenak egin dira:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Koordinazio Mekanismoari buruzko Dekretuaren proiektuaren gaineko



legezkotasun txostena.

2011ko Estatistika Programaren Dekretuaren Proiektua.

Euskadiko Udaltzainen Erregistroa sortzeko eta arautzeko eta Udaltzainen Egiatzapen Profesionalaren sistemei buruzko Dekretuaren proiektua.

Historia klinikoari eta pazienteen eta osasunaren esparruko profesionalen

eskubideei eta betebeharrei buruzko dokumentazio klinikoari buruzko Dekretuaren proiektua.

Telelaguntza Zerbitzu Publikoari buruzko Dekretuaren Proiektua.

EAEko Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretuaren proiektua.

Osasun eta Kontsumo Sailaren Datu Pertsonaldun Fitxategiak arautzen dituen Aginduaren proiektua.

Aholkularitza eginkizuna

Aholkularitza bilerak eta telefonoz, posta elektronikoz edo bertaratuta egindako kontsultei emandako erantzunak

- Gure jardueraren izaera proaktiboa eta zerbitzua emateko dugun bokazioa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin. Bileretan erakundeen betekizun formalen inguruko hainbat gairi buruzko eta erakundeen jarduerak datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidean duten eraginari buruzko aholkularitza eman dugu.
- Arreta Kanal Anitzaren bidez, erantzun telematikoa emateko bitarteko bat izanik, herritarrek eta administrazioek egindako kontsulta guztiei banan-banan erantzun zaie. Tresna honen bidez, telefonoz, bertara etorrira edo posta elektronikoz hurbildu gaitezke gizartera, gizartearen zalantza, kontsulta eta kezka guztiak erantzuten saiatuz.
- Gai eremua kontuan hartuta, sistemak balio izan du ikusteko kontsulta gehienak honako gaiei buruzkoak izan direla: datu lagatzeak, ezerezte eskubidea, fitxategien betekizunak eta inskripzioak eta informatzeko betebeharra. Arlo sektoriala kontuan hartuta, kontsulta gehienak bideozaintzari, biztanleen erroldari eta osasun datuei buruzkoak izan dira.
- Kanal Anitzeko Sistemaren bidez, hainbat kontsulta erantzun dira, eta horietatik garrantzitsuenak jaso dira (554) eta honela sailkatu dira:

Kontsultak	Sarrera kanala			
	Telefonia	Presentziala	Posta elektronikoa	Posta
Kontsulta-egile mota				
Herritarrak 	163	100	17	
Administrazio publikoak 	107	56		1
Bestelako pertsona juridikoak 	67	37	5	1
GUZTIRA	337	193	22	2

Kontrol eginkizuna

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa kontrol eginkizunaz baliatzen da arau-hausteak deklaratzeko; tratamenduen arduradunei eta tratamendu-eragileei eskatzen die indarrean dagoen araudira egokitzeko datu-tratamenduak, eta, hala badagokio, zehatzeko ahalaz baliatzen da edo diziplina-prozedurak hasteko proposatzen du.

Era berean, datu-babesaren arloko araudia bete dadin zaintzen du eta araudia ezartzen dela kontrolatzen du, batez ere informazioarako eskubideari dagokionez eta datuak atzitu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideei dagokienez (AZETA eskubideak ere esaten zaie).

Eskubideak babesteko prozedurak

- Eskubideak babesteko prozedura bat hasteko, lehenengo erreklamazio bat aurkeztu behar da dagokion administrazioan, eta administrazioak atzipen eskubidea, ezerezteko eskubidea, zuzentzeko eskubidea edo aurka egiteko eskubidea ukatzen badio, osorik nahiz zati batean, eta dena delako pertsona horrek DBEBri jakinarazten badio gertatutakoa,

DBEBk prozedura bat hasten du aztertzeko ea bidezkoa izan den ala ez eskubideez baliatzeko eskaera ukatu izana.

- Atzipen eskubidea izan da berriro ere babes eskabide gehien ekarri dituen, eta batez ere osasunaren esparruan. Interneten argitaratutako datuak ezerezteari buruz ere gero eta eskaera handiagoa antzematen da gizartean.

- Edozelan ere, nabaritzen da herritarrek gero eta hobeto dakitela noiz, nola eta zein baldintzekin erabil ditzaketen administrazio publikoen aurrean atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak. Era berean, administrazioek ere gero eta kultura handiagoa erakusten dute herritarrei eskubide horiez baliatzen uzteko orduan.

Salaketak

- Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten diren jarduerak direla-eta.

Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

- Aipatzeko modukoa da bideozaintza sistemei buruzko salaketa kopurua asko hasi dela. Salaketek

erakusten dute bideo kamerak informatzeko betebeharra bete barik instalatzen direla, eta segurtasuna ez den beste helburu batzuetarako erabiltzen direla.

Arau-hauste prozedurak

- Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako prozedurak dira horiek, eta administrazio publikoek datu babesaren arloko araudiaren aurkako

jarduerarik egin duten egiaztatzea dute helburu.

- Erreklamazio gehienak datuen proportzionaltasunaren printzipioa urratzeagatik,

datuen helburuari buruzko printzipioa urratzeagatik, sekretu gorde beharra urratzeagatik eta segurtasunari buruzko printzipioa urratzeagatik aurkeztu dituzte.

Eskubideak babestea eta osasun datuak



dugu; eskubideaz baliatzeko, titularrak hainbat ahal ditu, eta ahal horiek dira DBLOk erabiltzen dituen tresnak datuak babesteko printzipioak benetan gauzatzeko eta pertsonen baimatzeko haien datu pertsonalen gaineko benetako kontrola dutela. Eskubide horiek azaroaren 14ko 41/2002 Legean ere jasota daude. Lege horrek pazienteen eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu.

Hona hemen eskubide garrantzitsuenak:

- Informaziorako eskubidea.
- Norbere datu guztiak atzitzeko eskubidea.
- Aurka egiteko, ezerezteko eta zuzentzeko eskubidea.

Informazioaren eskubideari dagokionez, esan behar dugu nahitaezko eta funtsezko betekizuna dela, kontrolatu nahi badugu nortzuk, nola eta zertarako dituzten gure datuak. DBLOren 5. artikulua eskubide horretaz arduratzen da eta eskubidearen betebeharrak ezartzen ditu bertan. Bestalde, DBLO garatzen duen Erregelamenduak osatzen du eskubidea, eta agintzen du interesdunari informazioa eman zaiola jasota geratzeko balio duen bitartekoren baten bidez eman beharko zaiola informazioa, eta bitartekoa gorde egin beharko dela datu pertsonalen tratamenduak dirauen bitartean. Baina, hala ere, erregulazio hori asistentziaren esparruko informazioari buruzko 41/2002 Legean xedatutakoarekin osatu beharko da. Erregulazioaren alderik aipagarriena da “ez jakiteko eskubidea”. Pazienteak duen eskubide subjektibo bat da, eta pazienteak ez badu informaziorik nahi, pazientearen nahia bete egin behar dela adierazten du.

Atzipen eskubideari dagokionez, interesdunak eskubidea du bere

toki administrazioari doan eskatzeko bertan tratatzen dituzten berari buruzko datu pertsonalen gaineko informazioa, zein den datu horien jatorria eta datu horiekin zeintzuk komunikazio egin diren eta zeintzuk egitea aurreikusten den. Eta informazio hori jasotzeko eskubidea du. 41/2002 Legearen 18. artikulua bermatzen du pazienteak bere historia klinikoa eskuratzeko eskubidea duela. Pazientea bera edo pazientearen ordezkaria (behar bezala egiaztatuta) balia daiteke eskubideaz. Norbere historia klinikoa dauden osasun datuak atzitzeko eskubideak bi muga ditu:

- Historian jasota dauden datuak direla eta, hirugarren pertsonen konfidentzialtasunerako eskubidea. Pazientearen interes terapeutikorako jasotako datuak izaten dira.
- Historian parte hartu duten profesionalen eskubidea. Izan ere, historian egindako ohar subjektiboak babesteko, atzipen eskubideri aurka egin diezaioke.

Horretaz gain, legeak berariaz aurreikusten du hildako pazientearen historia klinikoa atzitzeko eskubidea dutela hildakoarekin harremana zutenak, hau da, senideak zirelako edo izatezko harremana zutelako, baldin eta berariazko debekurik ez badago.

Zuzentzeko eta ezerezteko eskubideei dagokionez, esan behar da zuzentzeko eskubideak datu okerrak edo zerbaiten faltan dauden datuak zuzentzeko aukera ematen duela. Gainera, osasun datuen esparruan garrantzi handia hartzen du eskubide horrek, osasun datu bat okerra bada, pazientearen benetako egoeraren gaineko balorazio okerra egitea ekar dezakeelako. Bestalde, historia klinikoko datuak ezerezteko eskubideak ere mugak ditu. Mugak legeak jartzen ditu, eta, besteak beste, ezartzen du informazioa bost urtean gorde behar dela, prozesu asistentzialean alta ematen zaionetik pazienteari.


Azkenik, aurka egiteko eskubideari dagokionez, esan behar da eskubide horrek interesdunari uzten diola bere datuak tratatzearen kontra agertzeko aukera. Horrek berez osasunaren arloan ez du ondorioirik, osasun asistentziaren helburua kontuan hartzen bada. Interesdun batek eskubide hau erabiliko balu, haztatu egin beharko litzateke ea datuen tratamenduari aurka eginez gero, hau da, interesdunaren osasun datuak kanpoan utziz gero, pertsona horren osasunean edo hiltzeko arriskuan eraginik izango lukeen. Hiltzeko arriskua egonez gero, ordea, bizitza babestu behar da, eta datuak babesteko eskubidea (aurka egiteko eskubidea) baztertu egingo da.

Herritarrek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egindako galderei dagokionez, esan behar da historia klinikoa atzitzeko eskubideari buruzkoak izan direla batez ere, ezen, orohar, eskubidea bete bada ere, maiz berandu bete baita.

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa

Inskribatutako datu pertsonalen fitxategiak

- Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan 7.219 fitxategi zeuden inskribatuta 2011n.
- 2011n Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroak % 13,8ko igoera izan du 2010ean inskribatuta zegoen fitxategi kopuruarekin alderatuta (877 fitxategi berri gehiago).
- 2011ko hazkundera 2010eko hazkunderaren antzekoa izan zen, hau da, % 14,9koa izan baitzen; eta bere horretan segitzen du Bulegoa sortu zen urteaz geroztik, hau da, 2004az geroztik, izan duen gorako joerak.





Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan egon diren mugimenduak

- 2011an 1.826 mugimendu egon dira erregistroan. Horrek esan nahi du 2010eko mugimendu kopurua baino zertxobait handiagoa izan dela (% 10,3), 2010ean 1.655 mugimendu zenbatu baitziren.

Mugimenduen % 58 fitxategi berrien inskripzioak izan dira; lehendik dauden fitxategietan egindako aldaketak % 32 izan dira; eta, azkenik, ezabatutako fitxategien

portzentajea % 10 izan da. Ezabaketa gehienak gertatu dira fitxategi berriak sortu direlako eta datuak fitxategi berri horietara eraman direlako.


- 2011ko mugimendu gehienak toki administrazioek (udalak eta horien menpeko erakundeak) egin dituzte. Guztira 1.057 mugimendu (% 58), eta Eusko Jaurlaritzak 656 mugimendu egin ditu (% 36).



Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa

Inskribatutako fitxategien banaketa, erakundeen arabera

- Deklarazio gehien egin dituzten administrazioak, administrazio motaren arabera: toki administrazioak 5.340 fitxategi ditu deklaraturak (% 73), Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomiadunek 1.068 (% 15) eta foru administrazioak 341 (% 5).
- 2011an udalak izan dira denetara mugimendu gehien egin dituzten erakundeak. Guztira 642 fitxategi gehiago inskribatu dituzte. Beraz, 2010arekin alderatuta, % 13,7 igo da portzentajea.



EAEko administrazio publikoetako fitxategien arduradunen iritziari buruzko azterketa soziologikoa

Fitxategien arduradunen iritzia

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, Gobernuaren Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineterekin lankidetzan, azterketa soziologikoa bat egin du jakiteko zein diren Titulartasun Publikoko Fitxategien Arduradunen pertzeptzioa eta premiak Datuak Babesteko Oinarrizko Eskubidearen gainean eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egiten duen lanaren gainean.

Informazio bilketa 2010eko azaroaren 19aren eta 2011ko urtarrilaren 21ren artean egin zen, galdetegi egituratu eta itxi bidez, 1.128 fitxategien arduradunek osatutako lagin



multzoa erabilita. Lortutako erantzunen portzentajea % 50,6koa izan zen.

Azterketa hau oso lagungarria izan da guretzat informazioaren eta datu pertsonalen babesaren kudeaketari buruzko pertzeptzioak

zein diren jakiteko eta fitxategien arduradunak diren pertsonen jarrerak alderatu ahal izateko beste herrialde batzuetako arduradunek dituztenekin.

Emaitzei esker, gainera, elkarriketarako gune bat ezarri ahal izan dugu esparru publikoko datu babesarekin zer ikusia duten galderak, iradokizunak edo zalantzak planteatzeko eta horiek erantzuteko. Hasteko, gutun bat idatzi genuen eta gure web gunean argitaratu: "Euskal administrazio publikoetako fitxategien arduradunentzako gutuna". Gutunak maiz egiten diren galderak erantzuten ditu.

EAEko administrazio publikoetako fitxategien arduradunen iritziari buruzko azterketa soziologikoa

Azterketaren emaitzak

• **Erakundeek zein baliabide dituzten:** % 76k uste du erakundeek behar adina baliabide tekniko dutela. % 74k uste du giza baliabideak ere nahikoa direla datu-babesari heltzeko, eta antolaketa protokoloei dagokionez % 59ra jaisten da, eta beharrezko ezagutzari dagokionez % 57ra.

• **Euskal araudiak ematen duen babesa:** euskal herritarren babes maila altua da % 44rentzat eta ertaina % 37rentzat. European bakarrik Eslovenian eta Finlandian uste dute babesa handiagoa dela.

• **Indarrean dagoen araudiaren gaineko ezagutza:** % 27k bakarrik dio ezagutzen duela indarrean dagoen araudia, eta % 70ek dio zerbait ezagutzen dutela. Alderdi honi dagokionez, araudia hobeto ezagutzen dutela erantzun duten fitxategien arduradunak Eslovakiakoak (% 46) eta Esloveniakoak (% 48) dira.

• **Indarrean dagoen araudiari buruzko iritzi orokorrak:** galdetutakoen % 92k adierazi du indarrean dagoen datuak babesteko araudia beharrezkoa dela oinarritzko eskubide hau babesteko. Bestalde, % 44k dio zenbait alderdi zorrotzegiak direla.

• **Jardunbide Egokien Eskuliburua ea ezagutzen duten eta ea baliagarria den:** bakarrik % 39k dio ezagutzen

duela Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburua. Ezagutzen dutenen % 73k dio baliagarria dela.

• **Legedia eta informazio pertsonalaren erabilera gehitzea:** % 14k esan du, kontuan izanda informazio pertsonala gero eta gehiago erabiltzen dela, legedia egokia dela horri aurre egiteko, eta % 49k dio legedia oso egokia dela. Europarekin alderatuz gero, Euskadiko fitxategien arduradunak dira araudia egokiena dela uste dutenak.

• **DBEBrekiko harremana:** % 15ek izan ohi du normalean harremana DBEBekin, eta horietako % 33k dio informazioa eskatzeko izaten dela, % 22k dio jakinarazpen edo abisu kontuetarako izaten dela, % 9k dio kexengatik izaten dela eta % 4k dio ikuskapenengatik izaten dela. % 52k esan du azkar erantzun dutela, % 36k adierazi du ez dutela erantzun ez azkar ez mantsoegi, eta, azkenik, % 85ek esan du pertsonengandik jasotako arretarekin pozik edo oso pozik daudela.

• **Datu pertsonalen jabetza:** % 6k pentsatzen du bere erakundeak dituen datuak administrazioarenak direla, % 59k uste du datuak herritarrenak direla, haiek ematen dituztela kontuan hartuta; eta % 32k uste du bienak direla.

• **Adostasun beharra:** erantzun duten fitxategien ia arduradun guztiek (% 98) dakite datuen titularren adostasuna nahitaezkoa dela izaera orokorrekin datuak tratatzeko.

• **Lagapenaren legitimitatea:** % 48k uste du administrazioen arteko datu pertsonalen lagapena zilegi dela eskumen berberak gauzatzeko bada, eta % 27k uste du zilegi dela antzeko eskumenak gauzatzeko bada.

• **Datu pertsonalen erabilera bidegabeak administrazioari dakartzkion ondorioak:** datu pertsonalak behar ez bezala erabiltzeak erakundearentzat izan ditzakeen ondorioak direla eta, % 83k uste du erakundearen irudi publikoan egin dezakeen kaltea dela okerrenea; % 73rentzat komunikabideetan egin daitezkeen kritikak dira okerrenea, eta, azkenik, % 70entzat okerrenea da arau-hauste deklarazioa.

• **Arau-hausteen deklarazioen berri izatea:** bakarrik % 31k du DBEBk egin ditzakeen arau-hauste deklarazioen berri.

• **Balorazio orokorra:** fitxategien arduradunek Otik 10erako eskalan 7,3ko puntuazioa eman diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ematen duen bermeari datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari dagokionez.

EAEko administrazio publikoetako fitxategien arduradunen iritziari buruzko azterketa soziologikoa

Fitxategien arduradunentzako gutuna

Azterketa eta emaitza horietan oinarritu gara azterketan maizen agertu diren galderei erantzuteko, horretarako fitxategien arduradunei zuzendutako gutunaren bitartez:

- Administrazio publikoek deklaratu dituzten edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Fitxategien Erregistroan inskribatzen dituzten datu pertsonalen fitxategiak publikoak dira?

DBEBren Erregistroan deklaraturako edo inskribaturako fitxategien zerrenda DBEBren web orrian dago argitaratuta, eta eskuragarri dago bertan, Datuak Babesteko Erregistroa atalean.

- Nor da administrazio publikoek gordetzen dituzten datuen jabea?

Administrazioak dituen datuen jabeak pertsonak dira, pertsonak direlako datuen titularrak. Beraz, administrazioak pentsatzen badu datu-bilketan aurreikusita ez zegoen datu-tratamenduren bat egitea, legezko baimenik gabe, administrazioak tratamendua egiteko baimena eskatu beharko dio datuen titularra den pertsonari.

- Legezkoak dira administrazioen arteko datu-lagatzak?

Administrazioen artean interesdunen baimenik gabe egiten diren datu-lagatzak legezkoak izango dira, baldin eta:

- lege batek baimentzen baditu,
- datu-lagatzeeen xedeak helburu historikoak, estatistikoak edo zientifikoak baditu,
- datuak administrazio batek bildu baditu beste administrazio batentzako,
- eskumen berdin-berdinak gauzatzeko komunikatzen direnean datuak, edo gai berei buruzkoak badira.

- Administrazioek gordetzen dituzten datu pertsonalak behar ez bezala erabili edo lagaz gero, zein izan daitezke ondorioak?

Datuak behar ez bezala erabili edo tratatuz gero, arau-haustea deklaratu ahal izango da, eta hala badagokio, diziiplina jarduerak eta ondare erantzukizunak hasi ahal izango dira, eta, beharbada, erantzukizun penalak ere bai.

Legeari ezarritakoa alde batera utzita, arau-hauste deklarazioek kritika soziala ere badakarte, eta,

horrek ondorio politikoez gain, irudia kaltetzea eta medioetan ematen dioten tratamendua okertzea ere ekar dezake.

Zer egiten du DBEBk arau-hauste bati buruzko salaketa bat jasotzen duenean?

Egiaztatzen bada erakunde batek datu pertsonalak behar ez bezala erabili dituela, DBEBk honela jokatzeko du:

- Arau-haustea deklaratu du.
- Araua hausten duen jokaerak bertan behera uzteko edo zuzentzeko zein neurri hartu behar diren ebazten du.
- Langile publikoen aurkako diziiplina-jarduerak proposatzen ditu, hala egin behar dela irizten badio.
- Zehapen prozedura ezartzen die tratamendu-eragileak diren enpresei.
- Fitxategiak geldiarazteko ahala erabil dezake, hala badagokio.
- Jarduera penala hasteko agintzen du, bidezkoa irizten badio.

Arau-hauste deklarazioen ebazpenak Arartekoari jakinarazten zaizkio.

Pribatutasunaren kontzeptuaren zabalkundea

Datuak Babesteko Euskar Bulegoa gizarte komunikabideetan



- Lankidetzat hitzarmena sinatzen Blanca Lilia Ibarra andrearekin, Informazio Publikoa Atzitzeko Pueblako Estatuko Batzordearen komisiadun lehendakaria denarekin. Mexiko.

DBEBren eginkizunetako bat da datu pertsonalen tratamenduak direla-eta dituzten eskubideen gaineko informazioa ematea pertsonari. Zein eskubide ditugun jakinez gero, nola erabili ere jakin dezakegula. Horregatik, Bulegoaren ildo estrategikoa bat da herritarrei datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen gaineko informazioa eta prestakuntza ematea. Komunikabideak funtsezkoak dira pribatutasunerako eskubidearen zabalkunderako. Prentsak,

telebistak, Internetek eta sare sozialek, denek lagundu dute zeregin horretan.

Gardentasunak eta informazioa atzitzeko eskubideak, administrazio elektronikoak, sare sozialek, adin txikikoen pribatutasunak, cyberbullyingak eta Osakidetzak agintzen dituen botika generikoek leku handia izan dute komunikabideetan.

Era berean, komunikabideetan oihartzun handia izan dute datuak babesteko oinarritzko eskubidearen zabalkundea

sustatzeko DBEBk Mexikoko Errepublikako honako erakundeekin adostutako lankidetzat hitzarmenak: Informazio Publikoa Atzitzeko Pueblako Estatuko Batzordea (CAIP) eta Nueva Leónko Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordea (CTAINL).

2011n zehar Internet zabalkunde tresna garrantzitsua izan da, eta DBEBren web orriak 73.000 bisita baino gehiago izan ditu, iaz baino ia % 10 gehiago.

Pribatutasuna lehiarako abantaila bat da

Goiko izenburu zirikatzaile hori erabilita datu-babesa organizazioak hobetzeko aukera bat izan daitekeelako uste sendoa helarazi nahi diot enpresa munduari.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari euskal administrazio publikoek datu pertsonalak babesteko legedia betetzen dutela zaintzea dagokio; baina, herritar guztiok kontsumitzaileak eta bezeroak ere bagarenez, pribatutasunaren kultura hedatzen laguntzeko asmo berezia dugu, ez bakarrik administrazioen artean, bai eta organizazioen eta enpresen artean ere, eta, batez ere, herritarren artean, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea zaintzeko berme gisa.

Adituek egunero gogorarazten digute konfiantza dela jarduera ekonomikoaren oinarria eta eragilea; eta, azken finean, bai eta aurrerapen ekonomikoarena ere. Enpresek oso ondo dakite hori. Jabetuta daude ukiezinen balioaz, marka baten balioaz eta bezeroek marka batean eta ibilbide batean jartzen duten konfiantzari ematen dioten balioaz. Jakin badakite horrek ondorio positiboak dituela, eta arduragabekeriak, huts egiteak edo deskuiduak, nahiz eta bakarra izan, erregistratuta gertatzen direla, dena dagoela ikusgai eta horren ondorioak kalkulaezinak direla ere badakite. Asko pentsatu beharrik gabe datozkigu burura datu pertsonalen segurtasunean izandako porrotak izan zituen ondorioak Sony kasuan eta beste askotan.

Fitxategien arduradunek ere badute ondorio horien berri, eta sumatzen dute hor dagoen mehatxua; eta hain zuzen ere horrexegatik, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak kolektibo horrentzat egindako azken iritzi-zundaketak agerian utzi zigun inkestaturen % 83k mehatxurik handienetakotzat dutela organizazio batek datu pertsonalak behar ez bezala erabiltzea, horrek irudia hondatzen duelako.

Bada, enpresentzat euren bezeroen datu pertsonalen segurtasuna lehen mailako ondasun ukiezina da, markari atxikitako ukiezina, markak eskaintzen duen konfiantzari itsatsia, eta jada markarekin batera osotasun bakar bat eratzen duena, bezeroen datu pertsonalen segurtasunaren urraketa edo erabilera okerrak konfiantza galera dakarrelako.

Gizarteak ohiturak eta gustuak aldatu ditu, bai eta premiak ere, balioen eskala berrikusi du, eta hemen daude, betiko etorri dira.

Bilatzaileen eta sare sozialen kulturaz ari gara; eta horrek ia pertsona gehienen intimitatean du eragina. Horren guzti horren ondorioz, gure erosketa ohiturak aldatu dira, munduan egoteko eta ibiltzeko gure modua ere aldatu egin da. Horregatik, bezeroei konfiantza eskaini nahi dieten enpresentzat da hain estrategikoa enpresa informazioa argi eta garden azaltzea, eta gardentasuna eta bezeroen datu pertsonalen tratamendua bikain eta txukun uztartzea. Dikotomia hori, hau da, enpresa gardentasuna eta bezeroen pribatutasunaren babesa ibilbide-orrian jaso beharko lukete, horrek handitu egiten baitu marka batenganako, enpresa batenganako konfiantza.

Datu-babesaren arloko hutsegite batek negozio baten oraina zapuztu dezake eta etorkizuna suntsitu. Informazioaren gizartean arduragabekeria guztiak, deskuidu guztiak erregistratuta geratzen dira, dena dago begiradapean; ahulguneen berri izateak lehiakidearen erasotzeko gaitasuna biderkatzen du, eta horri gehitu behar zaio teknologia berriek dakarten beste larrigarri bat, eta zera da: behin agerian geratu dena ezin izango dela sekula gehiago ezkutuan gorde.

Informazioaren eta komunikazioaren gizarteak kontraesan sakon batekin bizi du bizitza pribatuaren exhibizionismoa sustatzen duen joeraren eta bakean utz gaitzaten dugun eskubidearen arteko lehia. Teknologia berriek eta Internet bidezko salerosketa sistema berriek bizkortasuna eta eraginkortasuna bateratzen dituzte, baina datu pertsonal sentsibleak ere jartzen dituzte enpresen eskura, zenbatu ere ezin daitekeen balioa duen informazio iturria dira. Pentsa dezagun datu horiekin bezeroen profilak sortu daitezkeela, eta horrek marketing kontuetan eman dezakeen abantaila. Baina, guztiok bezeroak garenez, ez da zaila enpatikoa izatea eta jakitea zer nahi dugun bezero garenez, eta nahi duguna gure datu pertsonalak zertarako, nola eta nolako konfidentzialtasunarekin erabiliko dituzten argi eta garbi jakitea eta konpromiso hori beteko dutelako bermea izatea baino ez da. Azken finean, datu babesari buruzko araudia beteko delako bermea izatea.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzeak eta kontrol agintaritzek burutzen dugun zereginak merkataritza interes legitimoen eta datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen arteko oreka lortu nahi dute. Horregatik, orrialde

honetatik enpresa guztiei luzatu nahi diet gonbidapena enpresaren ADNan txerta dezaten bezeroen datu-babesa, eraginkortasunerako estrategia bezala eta arrakastarako betekizun gisa.

Datuak babesteko agentziek indar handia jartzen dugu eginkizun horretan, sen onak ere horixe dioelakoan, gizarteak ere hala

egiteko eskatzen duelako, legezko betekizun bat delako eta oinarritzko eskubide hau bermatzeko baldintzak sostengatzeko dituelako.

(*Estrategia Empresarial* aldizkarian 2011ko irailaren 8ko 409. zk.an argitaratua)

Pribatutasunaren kontzeptuaren zabalkundea

Datu Babesaren Europako Eguna



- Hezkuntza sailburuordea den Marian Ozcariz andrea eta DBEBren zuzendaria.

Urtarrilaren 28an Datu Babesaren Europako Eguna ospatu genuen. Europako Kontseilua da hasiera-hasieratik ospakizun honen sustatzailea, eta urtarrilaren 28an ospatzen da egun horretan sinatu zelako pertsonen datuen tratamendu automatizatuari dagokionez, pertsonak babesteko Europako Kontseiluaren 108 Hitzarmena.

DBEBk ere egun hau ospatu nahi izan du, eta ikus-entzunezko baliabide bat argitaratu du, bideo tutorial formatuan, sare sozialetan zelan parte hartu azaltzeko, pribatutasunari ahalik eta kalte

gutxien eginda. “Sare Sozialetako Pribatutasuneko Tutorialak” dira, sareen erabiltzaileei zuzenduak, eta bertan azaltzen da nola konfiguratu behar diren pribatutasuneko aukerak behar diren bermeekin, nola blokeatu irudiak eta gonbidapenak eta sarean enbarazu egiten duten pertsonak nola baztertu.

Sare sozialak leku ezin aproposagoak dira komunikaziorako eta harremanetarako, eta askatasun guneak dira. XXI. mendeko plaza publikoak dira, eta, gainera, gero eta gehiago darabiltzate pertsona

helduek ere. Tuenti, Twitter eta Facebook eta antzeko beste sare sozialetako pribatutasunari buruzko tutorialok erakusten dute nola kudeatu hain birtuala eta aldi berean erreala den ingurunea.

Datu Babesaren Europako Egunean DBEBren egoitzan aurkeztu ziren Tuentiri buruzko bideotutorialak, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lankidetzarekin aurkeztu ziren; izan ere, gazteentzat oso baliagarria den hezkuntza baliabidea baita honakoa.

Publikoa eta pribatua

Orain dela ez asko hizpide izan genuen “Gauzen Interneta”, identifikazio-gailuez ekipatuta dauden objektuen sarea izendatzen duen kontzeptu berria, objektuak une oro non dauden eta nork dituen jakitea ahalbideratzen duena, eta teknologia berri bat ere izendatzen duena informazioaren eta ezagutzaren mundu honetarako, non, adituek iragartzen dutenez, hamar urteren buruan egun ezagutzen dugun pribatutasuna desagertuta egongo den, galarazten ez badugu.

Ezen aldaketa teknologikoarekin batera aldatzen ari baita komunikatzeko, harremanak egiteko eta munduan egoteko dugun modua ere. Esateko baterako, eskuz idatzitako gutunak, bideo zintak, argazki-filmak eta telebista analogikoa oso modu zolian desagertu dira gure ingurutik. Horiek utzitako lekua hartu dute mezu elektronikoei, telefono mugikorrek, ipad-ek, iphone-ek, sare sozialek eta TDTak.

Iraultza teknologikoak lengoia aldarazteaz gain, kontzeptu berriak ere ekarri ditu. Gure artean guztiz errotuta daude jada testu-mezua, mezu elektronikoa, blogatu, googleatu edo weba bezalako hitzak. Beste hitz batzuk, ordea, bestelako esan nahiak hartu dituzte natibo digitalen artean. Izan ere, bizitza errealean oso bestelako esan nahia dute, adibidez, gehitu, etiketatu edo sarean blokeatu hitzek, bai eta sare hitzak berak ere.

Zenbait balorez dugun pertzepzioa era aldatu egin da. Intimoa zer den, konfidentziala zer den edo adiskidetasuna zer den, beste era batean irudikatzen da. Sare sozialetan ibiltzeko ez da kontuan hartzen ezagutzen ez diren egoeretan tentu handiz eta zuhurtziaz jokatu behar denik edo ezezagunekin ez denik hitzik egin behar. Aitzitik, maiz hitz egiten dugu ezezagunekin, sekula bertatik bertara ezagutuko ez ditugun pertsonekin; eta hori hala izanik, modu birtualean bada ere, norbere etxeko ateak eta leihoak zabaltzeaz gain, gure agendak, zaletasunak, kezkak eta joan-etorriak ere erakusten dizkiegu. Gure bidaia, irudiak, aldarteak eta zaletasunak partekatzen ditugu haiekin.

Gure bizitzaren berri inori eman beharrak eta inorenaz jakin beharrak, neurrigabeko jakin minak eta exhibizionismoak eraginda, hamalau mila erabiltzailek haien posta elektronikoko eman dizkiote web bati, weba zertarako den, zer lortu nahi duen eta zer eskaintzen duen jakin gabe. Hacker News deritzon web gunean jarritako iragarki batek lortu du miraria.

Era berean, Interneten kontu bat irekitzen dugun bakoitzean eta kontuaren kudeatzaileek jarritako kontratu eta erabilera baldintzak onartzen ditugunean, kontuan izan behar dugu dena delako enpresaren zerbitzariak kokatuta dauden estatuek (Estatu Batuak, India edo Korea) informazioaren tratamenduari ezartzen dieten jurisdikzioaren menpe geratzen garela eta gure datuak hara transferitzeko eta han prozesatzeko adostasuna adierazten dugula. Beraz, auzitara jo nahi badugu, han egin beharko dugu, horrek ekar ditzakeen eragozpen guztiekin. Izan ere, baldintzak onartzean, baimena eman baitugu.

Gero eta gehiago dira esaten dutenak Interneteko segurtasunak duen arazorik handiena erabiltzailea bera dela. Baina gure eskubideez baliatu ahal izateko, ezagutu egin behar ditugu eta erantzukizunez erabili. Ezin da inprobisatu eta nahierara jokatu!

Lege-esparrua berrikustea konponbide bat izan daiteke. Europako Batzordea Datu Pertsonalak Babesteko Zuzendaraua moldatzen ari da eta aurten argitaratu nahi da. Baina informazioaren teknologiak hain direnez konplexuak eta etengabe aldatzen eta garatzen ari direnez, pentsatzekoa da legedia ez dela nahikoa izango etorkizunean pribatutasuna babesteko, eta funtsezkoa dela pribatutasuna bera ere teknologien parte izatea, teknologiak garatzen hasten diren unetik. Horixe da Privacy by Design (diseinu bidezko pribatutasuna) kontzeptuaren sorburua; prebentzioko metodo bat da, proaktiboa, pertsonen pribatutasuna sorburutik bermatzen duena. Dударik gabe, sakon landu beharreko kontzeptua da.

Edozelan ere, erabiltzaileok guk geuk ekarri behar ditugu segurtasunaren esparruko konponbideak. Horregatik, eta Datu Babesaren Europako Eguna dela baliatuz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Sare Sozialetako Pribatutasunari buruzko hainbat tutorial aurkeztu ditu, gure inguruko sare sozial ezagunenetan (Twenty, Facebook eta Twitter) nola erregistratu, pribatutasuneko aukerak nola konfiguratu edo irudiak, gonbidapenak edo pertsona gogaikarriak nola blokeatu azaltzeko. Tutorialak gure web orrian daude eskuragarri, eta gure pribatutasuna hobetzen lagunduko digite, hurrengo belaunaldiei irakatsiz.

(**Noticias de Álava** eta **Noticias de Gipuzkoa** egunkarietan argitaratua 2011ko urtarrilaren 28an eta 2011ko otsailaren 11tik 18ra bitarteko 566 zk.ko **EuskoNews** astekari digitalean argitaratua)

Pribatutasunaren kontzeptuaren zabalkundea

Internet Eguna 2011



Maiatzaren 17an Internet Eguna izan zen, eta mundu osoan ospatu zen. Hori dela eta, maiatzaren 12a eta 15a bitartean Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian gunebat antolatu zen balioa emateko sareari, hamaika zerbitzu eta edukieskaintzen dituen komunikabidebat itzateaz gain, partekatzea, kontsultatzea eta informazioa sortzea ahalbidertzen baitu.

Ekimen horren xedea da Internet herritarrengana hurbiltzea, ikastetxeak eta jendea zirikatu nahi ditu zerbitzu ugari eta intereseko edukia piloa eskaintzen dituen komunikabide honi balioa eman diezaioten. Ordenagailuen gune bat jarri zen nahierara edo norbaiten laguntzarekin ibiltzeko Interneten, eta horien ondoan beste gune batzuk musika elektronikoa konposatzeko, jolasteko eta hitzaldietan parte hartzeko.

Aurtengo ekitaldian DBEBk “Internet, Segurtasuna eta 2.0 Identitate Digitala” gaiarekin hartu du parte. Gaiaren asmoa izan da Interneten aritzean segurtasuna neurriak hartzea oso garrantzitsua delako mezua zabaltea eta horren gaineko kontzientziazio premia hedatzea. Gainera, adierazi nahi izan da zein garrantzitsua den kontrolatzea sare sozialean bidez zabalzen dugun notasuna, eta ulertaraztea Interneten proiektatzen dugun irudiak, hau da, “identitate digital” moduan ezagutzen den irudiak ondorio bat baino gehiago izan dezakeela gaur egun gutako bakoitzarengan, baina etorkizunean era bai. Mezua ematean xede jendea ere hartu da kontuan: batetik gazteak, interes gehien duten eragileak direlako, eta, bestetik, sare sozialek gasteengatik eraginaz kezkatuta dauden qurasoak eta familiak.

Jardunbide
Egokien Programa
Administrazio
Publikoetan

EUDELekin, udalekin, foru aldundiekin, Jaurilaritzako sailekin edo EUSKALITekin ditugun lankidetzak konpromisoek gain, berriagoak diren beste hauek azpimarratu nahi ditugu:

Lankidetza KZgunearekin

- Lankidetza ildo bat jarri dugu abian pribatutasunaren kontzeptua hedatzeko asmoz KZgunea-Interneteko Prestakuntza eta Sarbiderako Zentroen Euskal Sarearekin batera.

Plataforma honek azpiegitura indartsua du prestakuntza jarduerak burutzeko eta barneratze digitalerako aproposa, eta horrek datu

babesaren eta pribatutasunaren
esparruko prestakuntza eta
sentsibilizazio jarduerak egitea
ahalbideratu digu. Behin jolas
esparru batean, hau da, Umeen
Gabonetako Parkean, eta beste
zenbaitetan hezkuntza helmen
handiaqoko esparruetan.

- Umeen Gabonetako Parkea.
BECen antolatutako 2011-2012
Umeen Gabonetako Parkea
gune aproposa izan da bertan

parte hartzen dutenei datu babesaren arloko prestakuntza bideoak, Nerabeentzako eta Hezitzaileentzako Ataria eta Sare Sozialetako pribatutasunari buruzko Bideotutoriala erakusteko. Baliabide guzti horiek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web gunean daude ikusgai (www.avpd.es), eta baliabideon xedea da gizarte aktiboa eraikitzea,

Jardunbide Egokien Programa Administrazio Publikoetan



non datu-babesaren esparruan ditugun eskubideen berri izateak erantzukizunez jarduten lagunduko baitigun.

- Prestakuntza materialak. Bi ikastaro prestatzen ari gara pribatutasunaren kontzeptua linea bidez hedatzeko eta KZgunearen plataformaren bidez egin nahi dugu. Ikastaro bat herritarrei zuzendutako dago orokorrean, eta lortu nahi duena da pertsonak kontzientziaztea datu pertsonalen

babesaren arloko eskubide eta erantzukizunen arloan. Azken finean, geure informazio pertsonala kontrolatzeko dugun eskubideaz jabetu gaitezen.

Bestea, Sare Sozialetako Pribatutasunari buruzkoa da. Ikastaroaren asmoa da sare sozialak zentzuz eta erantzukizunez erabiltzeko kontzientziazioa lantzea eta sare sozialen konfigurazioa kontrolatzeko arriskuen eta praktika onen gaineko prestakuntza ematea. Ikastaroaren xedea da KZgunearen zentroen sarearen erabiltzaileen artean eztabaidak sustatzea eta zalantza praktikoak argitzea.

Lehenengo Nazioarteko Mintegia: datu babesaren erronkak



- Stefano Rodotà irakaslea, Erromako La Sapienza Unibertsitateko katedraduna

Datu Babesaren, Gardentasunaren eta Pribatutasunaren erronkak: beharrezko oreka.

Otsailaren 4an Datu Babesaren Erronkei buruzko I. Nazioarteko Mintegia egin zen Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egoitzan. Mintegia Madrileko CEU-San Pablo Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedraduna den José Luis Piñar Mañas jaunak zuzentzen duen ikerketa proiektu baten barruan egin zen, eta honako babesleak izan zituen: Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, CEU-San Pablo Unibertsitatea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

Lehenengo Nazioarteko Mintegia: datu babesaren erronkak



- Zuzendaria José Luis Piñar Mañas jaunarekin, Madrileko CEU-San Pablo Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedraduna denarekin.

Mintegian honako irakasle adituek hartu zuten parte: Università La Sapienza di Romako Zuzenbide Zibileko irakasle arrunta den Stefano Rodotà jaun irakasleak, Bordeleko IV. Unibertsitateko irakaslea den Pierre Duprat jaun irakasleak, Euskal Herriko Unibertsitateko Edorta Cobreros jaunak, Vigoko Unibertsitateko irakaslea eta Konstituzio Auzitegiko letradua den José Antonio Hernández Corchete jaunak, Castilla-La Manchako Unibertsitateko Eva Nieto andreak eta CEU-San Pablo Unibertsitateko irakaslea den José Luis Piñar Mañas jaunak.

Jardunaldiaren aurkezpen ekitaldian eta itxierakoan DBEBren zuzendaria den Iñaki Vicuña de Nicolás jaunak azaldu zuen mintegia egiteko arrazoiak zela erakundeen arteko lankidetzaren beharra, lineako herritarren, administrazio elektronikoaren eta ezagutzaren gizarte berriaren erronkei ekin ahal izateko.

Mintegiko hitzaldiek aukera eman zuten fenomeno berri baten inguruan gogoeta egiteko, jada planetarioa den fenomeno batez, iraultza berri bat ere badena — iraultza digitala —, kontuan izanik, bertan gertatzen diren egoerak aztertzeke ez dutela balio ohiko irizpideak. Paradigma aldaketa bat bizi dugu; Rodotà irakasleak esaten duenez, datu baseak kontrolatzen dituzten pertsonen handigurak bizi gaitu. Boterearen banaketa berri bat, zenbat eta informazio gehiago, orduan eta zaurgarriago den gizarte bat, dimentsio sozialaren garrantziak dimentsio indibiduala

ahultzea dakarrena. Testuinguru horretan datuak babesteko oinarritzko eskubidea funtsezkoa da elkarbizitzarako, funtsezkoa da demokraziarako, eta gardentasunaren etikotasuna printzipio eztaba daezina da.

Duprat irakasleak dio “gardentasuna ez dela dohaina, dohaina gardentasuna eta sekretua bereizten jakitea dela”. Gardentasunak zenbait muga izan behar ditu. Maiz eskandalua baliatzen da notizia bat lortzeko. Dena zirkuitu mediatikoaren parte da eta horrek anonimotasunarekiko tentsioa dakar, mehatxuzko intoxikazioa. José Luis Piñar irakasleak dioenez, “eguzkiaren argia da desinfektatzailerik onena”. Segurtasunaren eta datu babesaren arteko oreka egokia lortu behar da, eta, horretarako, kontuan izan behar da segurtasunaren eta datu babesaren artean ez dagoela kontraesanik. Bi eskubide horiek ere ez dira erabatekoak, eta kasuak banan-banan aztertu beharko dira, helburuaren, legezketasunaren eta informazioaren printzipioak kontuan hartuz eta aurka egiteko eskubidea bermatuz.

Teknologia berriek asko lagundu ahal diote intimitaterako eskubideari. Juan Antonio Hernández Corchete jaunak alderdi hori aztertu zuen herritarrek, baliabide elektronikoak erabilia, administrazio publikoekin erlazionatzeko eskubidearen ikuspegitik begiratuta. Era berean, eskubide horren helmena mugatzen duten beste eskubide osagarri batzuk ere aztertu zituen. Erronkak handiak dira, esate baterako, konektatuta dauden eta konektatu gabe dauden pertsonen berdintasuna bermatzea, eta baliabide horien erabileraren ondorioz, pribatutasuna galtzearen inguruan sortzen den mesfidantzari aurre egitea.

Eva Nieto irakasleak Justizia Auzitegiaren (Sala Nagusia) bi epai hauek aztertu zituen: 2010eko ekainaren 29koa eta azaroaren 9koa, bata, ez-betetze prozedura baten baitan egindako bilera bati buruzkoa, eta, bestea, nekazaritzako dirulaguntzen onuradunei buruzko informazioa argitaratzeari buruzkoa. Azterketa horrek argi adierazten du zein den Europako Auzitegiak erakundeetako dokumentuak atzitzeko eskubideari eta pertsona fisikoen babesari eman dien helmena.

Ondorio bat da oinarritzko eskubideak ez direla absolutuak, eta estatu demokratikoek publikoa den ororen gardentasuna eta bizitzaren pribatuaren opakutasuna bermatu behar dituztela.

Erakunde bilerak

Erakunde bilerak

DBEBk datu-babesari buruzko legedia betetzen dela eta behar bezala ezartzen dela zaindu behar du.

Zenbat eta proaktiboagoa izan erakundeekin egiten duen informazio emate, prestakuntza eta laguntza lana, orduan eta eraginkorragoa izango da. Hain zuzen ere, helburu hori erdiesteko batu da ondoko erakundeekin:



- **EIIEO-Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofiziala.**
- **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**
- **Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.**
- **KZGunea.**
- **Arabako Foru Aldundia. Gizarte Politiken eta Gizarte Zerbitzuen Saila.**
- **Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun Saila eta Gizarte Gaietarako Saila.**
- **OSATEK.**
- **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua**
- **Kultura Saila. Ondare Historikoaren Zuzendaritza.**
- **LANBIDE- Enpleguaren Euskal Zerbitzua.**
- **Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusia.**
- **Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Zuzendaritza.**
- **UNEDen Bergarako, Portugaleteko eta Vitoria-Gasteizko Ikastetxe Elkartuak**

Erakunde
bilerak

Aliantza Estrategikoak



- Kontseilu Aholku-emailea UNEDen Ikastetxe Elkartuetako zuzendariak diren Fernando Castañeda jaunarekin (Portugalete), Teresa Imizcoz andrearekin (Vitoria-Gasteiz) eta Iñaki Esparza jaunarekin (Bergara).

Hainbat aliantza estrategiko izenpetu ditugu, datu pertsonalak babesteko eskubidearen defentsaren zabalkundea eta eskubidearen gaineko prestakuntza eta hori guzti hori partekatzea ahalbideratzen duten jardunbide egokiak sustatzeko eta ildo estrategiarekin segitzeko. Hona hemen:

- **UNEDen Bergara, Bizkaia eta Vitoria-Gasteizko Ikastetxe Elkartuen (2011/09/26).**

Jardunbide egokiak ezartzeko lankidetzak esparru bat ezartzeko, adibidez, prestakuntza eta informazio saioak sustatzea, praktika aldiak egiteko aukerak ematea edo datuak babesteko arloan indarrean dagoen legediak duen eragina aztertzea ikasgai hauetan: Zuzenbidea, Informatika eta Teknologia Berriak.

- **Informazio Publikoa Atzitzeko Pueblako (Mexiko) Estatuko Batzordearekin (2011/11/16).**

Lankidetzak modu egokien bitartez, indarrean dagoen legediaren ezagutza eta ezarpena bultzatzeko, bata besteari informazioa emanez eta azterketa eta ikerketetan elkar lagunduz.

- **Nueva Leóngo Estatuko (Mexiko) Gardentasunaren eta Informazioa Atzipenaren Batzordea (2011/12/02).**

Datuak babesteko oinarritzko eskubidearen zabalkundea, azterketak eta ikerketak sustatzeko eta denen intereseko esperientziak trukatzeko.

Datuak Babesteko Espainiako, Kataluniako, Madrileko eta Euskadiako Agentzien arteko Lankidetzak

Datuak babesteko agentzien arteko lankidetzak bost lan talde sortzea ahalbideratu du: zuzendarien koordinazio taldea, idazkaritza nagusien lege-aholkularitzak koordinatzeko taldea, erregistrokoen taldea, ikuskaritzen taldea eta erregistroen taldea. Lan talde hauek aholkularitza izaera dute eta aldi berean behin biltzen dira. Bilerak bat

presentziala izan ohi da eta beste biak bideokonferentzia. Lan talde horiek aurten aztertu dituzten gairik garrantzitsuenak honakoak izan dira:

- “Erregistratu, sartu eta bajan eman” hezkuntza gida egokitzea, editatzea eta argitaratzea.
- Ekonomia Iraunkorraren Legeak DBLOren VII. tituluan egindako aldaketak.

- Ohartarazpenaren figura.

• Aldizkari ofizialetan Internet bidez argitaratutako datu pertsonalak gordetzea eta blokeatzea eta argitaratutako datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea.

• Fitxategiak jakinarazteko barruko kudeaketa sistema berria eta fitxategien sinkronizazioa.

DBEBren parte hartzea nazioarteko foroetan

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kide kreditatua izanik, nazioarteko foro eta esperientzia hauetan hartu du parte:



¿Haces lo que sea para cuidar tus datos personales?

El IFAI garantiza tu derecho.

IFAI, órgano del Estado mexicano.
www.ifai.mx



- Datu Babesaren Europako Agintaritzen Konferentzia. Udaberriko Konferentzia. Bruselan izan zen apirilaren 5ean eta 6an.
- Hitzaldiaren gaia: "Nazioarteko informazio zirkulazioa. Pribatutasuneko eskubidearen eta segurtasuneko teknologien uztartekarantz". Kanadan izan zen urriaren 17an eta 18an.
- Datuak Babesteko eta Pribatutasuneko Agintaritzen Nazioarteko 33. Konferentzia. Mexikon izan zen urriaren 31tik azaroaren 2ra bitartean.

Beste foro batzuk

- **Uruguai**

Hitzaldiak eta lankidetzak Datu Pertsonak Arautu eta Kontrolatzeko Unitatearekin (URCPD), bertakoak gaitzeko, eta Unitatearen 2010eko Memoriaren aurkezpena. Maiatzaren 10etik 13ra.

- **Mexiko**

Lankidetzak, Informazio Publikoa Atzitzeko Pueblako Batzordearekin (CAIP), Pueblako Estatuko Osasun Idazkariarekin eta Distritu Federalesko Informazio Publikoa Atzitzeko

eta Datu Pertsonalak Babesteko Institutuarekin (InfoDF). Horretaz gain, hainbat jarduerak Informazioa Atzitzeko eta Datuak Babesteko Institutu Federalarekin (IFAI) eta Informazio Publikoa Atzitzeko eta Datuak Babesteko Mexikoko Konferentziarekin (COMAIP), Mexiko DFn irailaren 1etik 6ra bitartean.

Hitzaldia Federazioko Botere Judizialaren Hauteskunde Auzitegian, eta lankidetzak eta hitzarmena Mexikoko Errepublikako Gardentasuna

eta Informazio Publikoa Atzitzeko Eskubidea Bermatzen duten Erakundeekin abenduaren 2tik 8ra:

- Nueva Leónko Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordea (CTAINL).
- Jalisco Gardentasuneko eta Informazio Publikoko Institutua-ITEI.
- Hitzarmena izenpetzea Informazio Publikoa Atzitzeko Pueblako Estatuko Batzordearekin (Mexiko).

**DBEBren
parte hartzea
nazioarteko
foroetan****Datuak Babesteko eta Pribatutasuneko
Agintaritzen Nazioarteko 33. Konferentzia****Pribatutasuna: aro globala**

2011ko azaroaren 2an eta 3an Datuak Babesteko eta Pribatutasuneko Agintaritzen Nazioarteko 33. Konferentzia egin zuten Mexikon izenburu honekin: “Pribatutasuna: aro globala”.

Informazioa Atzitzeko eta Datuak Babesteko Institutu Federalak (IFAI) antolatu zuen nazioarteko konferentzia, eta datu pertsonalak babesteko ardura duten munduko agintaritzak eta erakunde guztiek gain, adituek ere hartu zuten parte.

Nazioarteko konferentzia honetan datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubiderako garrantzi handiko hainbat alderdi aztertu zituzten, esate baterako honakoak: ahanztura eskubidea eta mundu digitalean duen bideragarritasuna; datu pertsonalen babesaren eta hondamendi naturalen arteko bidezko oreka; kontrol agintaritzek pribatutasunari buruzko arauen ezarpena gauzatzeari; datu pertsonalen kontzeptuaren definizioa birdefinitzea zientzia eta teknologiaren esparruko aurrerapenen eraginez; Europako Batasunean eta Estatu Batuetan pribatutasunaren esparruko lege erreformak eta legedia berriak Latinoamerikan, Asian eta Afrikan; segurtasuna segurtasunik gabeko munduan eta segurtasunak mundu modernoan dituen arriskuak; hodei konputazioa eta datu pertsonalen babesari dagokionez horrek dakartzan arriskuak; telefono mugikorren erabilera gero eta handiagoak pribatutasunean duen eragina; diseinu bidezko metodologiak esparru publikoan; pribatutasuneko estandar globalak balio globaletatik abiatuta; eta adin txikikoen babesa gero eta konektatuago dagoen mundu honetan, besteak beste.

Edozelan ere, 33. Konferentziaren gairik garrantzitsuenari “Big Data” izenburua jarri zioten. Konferentzian azpimarratu zen globalizazioaren aroan izanik, datu base handietan egiten diren biltegitratze modu berrietatik abiatuta egoten den informazioaren tratamenduek eta azterketek

eta datuak gainbegiratzeari ahalbideratzen duten zerbitzarien multzoek, adibidez, web orriek, sare sozialek, telefono mugikorrek eta abarrek erronka ekonomiko eta legal handiak dakartzatela; eta, aldi berean, norbanakoen autonomiarako eta datu pertsonalen benetako babeserako sekulako erronka izango direla.

Sarean gabiltzanean aztarnak uzten ditugu, gustuen aztarnak, iritzienak eta interesenak; azken finean, norberari buruzkoak. Informazio hori datu base erraldoietan gordetzen da, eta balio izugarria du enpresentzat. Horregatik, datozen urteetan diru mordoa inbertituko dute datu base erraldoi horiek aztertze balioko duten tresnak egiteko, eta bertan dagoen informazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

Konferentzia irekitzeko egin zen lehenengo hitzaldian IFAIren komisiadun lehendakariak adierazi zuen datuak babesteaz arduratzen diren gobernuak eta agintaritzek datu pertsonalak babesteko esparruko araudia teknologia aldatzen den abiadura berean sortu eta eguneratzeko erronka izango dutela aurrean, aurrerapen teknologikoez ez dezaten pertsonen segurtasun eta pribatutasuna mehatxatu. Horrez gain, Jacqueline Peschard-ek adierazi zuen datu pertsonalen tratamendu masiboek mugak eta lege xedapenak gaunditzen dituztela, eta pertsonen pribatutasunerako eskubideak printzipio argiak eta koherenteak behar direla mundu mailan.

Nazioarteko konferentzia horretan honako ebazpenak onartu zituzten:

- Egiaztapenen ebazpenak.
- Interneten 6 (IPv6) bertsioan inplementatzeko protokoloan identifikatzaile bakarra erabiltzeko buruzko ebazpena.
- Pribatutasuna nazioartean lege ezartzeko koordinazioari buruzko ebazpena.
- Datu babesa eta garrantzi handiko hondamendi naturalei buruzko ebazpena.

DBEBren parte hartzea nazioarteko foroetan

33. Nazioarteko Konferentzian parte hartu duten kontrol agintaritzek egindako lanen emaitzaren ondorioa “Mexikoko Hiriko Adierazpena” izan zen. Adierazpen horretan agintaritza anfitrioiak datu babesak eta pribatutasunak aro globalean dakartzan desafioak bere gain hartzeko eskatu zien konferentziako kideei. Horretarako:

- Ezagutza partekatu behar dute herrialdeek, agintaritzek eta pribatutasunaren arloko adituen erakundeek.
- Esparru honetako eragile guztien artean baliabideak ahalik eta ondoen banatzen saiatu behar dira, denen artean helburu komunak erdiesteko.

- Gardentasun eraginkorra sustatu behar dute, pertsonen hobeto ulertzeko eta babesteko eskubidea.

- Informazioa partekatu behar dute agintaritza berriekin eta elkarrizketa bidea zaindu, erakundeek arriskuak gutxitzeko eta jardunbide egokiak sustatzeko bitartekoak har ditzaten, baina datuak babesteko agintaritzen independentzia eta eraginkortasun batere kaltetu gabe.

- Datu babesa eraginkorra izan dadin egin den talde lanaren bidez lortutako aurrerapenak 34. nazioarteko konferentzian azaldu eta eztabaidatu beharko dira. Konferentzia Uruguain izango da.



Datu pertsonalen babesaren arloko hitzaldietan, mintegietan eta prestakuntzari buruzko bestelako jardueretan parte hartzea

Urtean zehar datu-babesari buruzko foro hauetan hartu dugu parte:



- Pedro Alberto Gonzalez, Erregistroaren eta Teknologia Berrien arduraduna
Euskal SecuriTIConferencen

Hitzaldietan, mintegietan eta bestelako prestakuntza jardueretan parte hartzea.

Datu Babesaren, Gardentasunaren eta Pribatutasunaren erronkak: beharrezko oreka.

Berrikuntza Ministerioaren eta Madrilgo CEU-San Pablo Unibertsitatearen laguntzarekin antolatutako mintegia. Vitoria-Gasteiz, otsailaren 4a.

Datu-babesaren kudeaketa eta Gardentasuna Informazioaren Kudeaketaren esparruan administrazio publikoetan.

Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europar Astearen barruan Q-Epeak antolatutako ekitaldia. Bilbo, urriaren 28a.

Datu-babesa. Gizartearentzako erronka bat. Udako Ikastaroen barruan emandako ikastaroa. Bergarako UNED, ekainaren 28a eta 29a.

"Privacy by design" pribatutasunaren arkitektura, hasierako diseinutik pribatutasuna

bermatzen duten irtenbideak eraikitzen. EIIEO-Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofizialak antolatutako Euskal SecuriTIConference-Informazioaren Segurtasunaren Euskal Jardunaldien barruan. Bilbo, maiatzaren 24a.

Honako hitzaldiak ere eman ditu:

Administrazio elektronikoa eta datu babesa 2010.

"Administrazio elektronikoari buruzko hausnarketak" izeneko VI. Jardunaldia. Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ofizialak antolatua. Bilbo, martxoaren 3a.

III. Topaketa Esparru Publikoarekin. "Balantzeak egiteko eta Programak aurkezteko garaia". Santander, martxoaren 14a eta 15a.

Laneko Osasunaren esparruko segurtasun neurriak. Osasun Datuen Babesari buruzko VIII. Foroa. Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak antolatuta. Iruñea, martxoaren 16a eta 17a.

Gardentasuna, informazio publikoa atzitzeko eskubidea, ahanztura eskubidea eta aldizkari ofizialak, administrazio espedientean sartzea eta atzipen eskubidea. Pribatutasunari buruzko I. APEP Biltzar Nazionala. Madril, maiatzaren 19a.

Datu babesa osasunaren esparruan, Osasun Datuen Babesari buruzko Jardunaldiaren baitan. Donostia, ekainaren 9a.

Administrazio eta Lan Zuzenbidearen Programa, Eusko Jaurlaritzako Auzibide Zuzendaritzak antolatuta. Vitoria-Gasteiz, azaroaren 11.

"Datu pertsonalen pribatutasuna ikastetxeetan", Euskadiko Psikopedagogia Elkarteak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Justizia eta Administrazio Publikoak antolatuta. Bilbon, azaroaren 16an.

Bulegoak beste prestakuntza saio bat ere antolatu zituen:

"Datu Babesa", Justizia Administrazioarentzat, Donostiako, Gasteizko eta Bilboko Justizia Jauregiatiko langileei zuzenduta.

"Zein eragin du guren lanean Datuak Babesteko Legeak?", lehen arretako osasun zentroetako langileei zuzenduta, Gasteizen.

Bikaintasunarekin konpromisoa

Aurten 2009-2011 Plan Estrategikoa bukatu egiten da, eta horrek aukera eman digu helburu estrategikoen esparruan egindako aurrerapenak ikusteko eta hurrengo epealdiari ekiteko eronka berrieekin.



Bikaintasunarekiko konpromisoak honakoak burutzeko balio izan du:

- Hirugarren REDER autoebaluazioa barruko talde-gogoetaren bidez eta Hobetzeko Ekintza Plana egitea.
- Pertsonen Asebetetzeari buruzko bigarren inkesta egitea. Inkestak pertzeptzioa nolako den hobeto jakiteko balio izan digu eta lan antolaketa, ikaskuntza edo laneko giroa hobetzen. Dimentsio horien berri izateak hobetzeko esparruak partekatzen eta horiei heltzen laguntzen digu.
- Lehenengo Kanpoko Kontrastea egitea. Euskaliteko talde ebaluatzaile batek egin zuen,

DBEBk bikaintasunarekin duen konpromisoa azpimarratu zuen eta DBEBri Bikaintasunarekiko Konpromiso Diploma emateko gomendioa egin zion Euskaliti. Azaroaren 21ean Vitoria-Gasteizko BAKHen egindako ekitaldi publiko batean eman zioten diploma Bulegoari.

- 2010eko ekitaldiko urteko kontuak auditatzea. Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin zuen, 2011ko apirilaren 19ko

Jaurilaritzaren Kontseiluak onartutako Auditoria Plana erabilia, eta ekitaldiko kontuei oniritzia eman zien.

- Herritarrentzako Zerbitzu Karta ebaluatzea eta 2012ko Karta egiteko hobetzeko arloak zehaztea.
- Pertsonetikiko dugun konpromisoak ahalbideratu du Laneko Arriskuen 2011ko Jarduten Planean, Osasun Zaintzeko 2011ko Prebentzio Planean eta Larrialdi Planean aurreikusitako jarduerak burutzea.



Bikaintasunarekin
konpromisoa

XVII. Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europar Astea



• DBEBko lan-talde bat

Urriaren 28an, Q-EPEAk, EUSKALITek eta DBEBk antolatutako XVII. Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europar Astea jardunaldi bat egon zen gai honi buruz: “Datu-babesaren kudeaketa eta Gardentasuna Informazioaren Kudeaketaren esparruan administrazio publikoetan”.

Irekiera ekitaldiaren ostean, informazioarekin lotutako eskubideekiko gardentasun eta errespetu handiagoa duen e-administrazioa lortzeko bidean dauden erronkei eta ildoei ekin zien jardunaldiak. Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiko magistratua den José Ramón Chaves jaunaren hitzaldia oso argigarria izan zen, alfabetoko ordenari jarraituta, administrazio elektronikoko geldiezina eta pertsonen eskubideak uztartzen direla bermatzeko erronkei buruzko zenbait gako aztertzeke. Gaztelaniazko *ARMONIZAR* hitzarekin hasi eta gaztelaniazko *ZANJAR* hitzarekin

bukatu zuen hitzaldia.

Batetik, datuak babesteko eskubidea oinarritzko eskubide gisa, espedienteak atzitzeko eskubidea eta administrazio publikoaren eraginkortasun eta eragimen printzipioak harmonizatu behar dira. Eta bestetik, administrazio publiko guztien, hau da, orokorraren era autonomikoen eta tokikoen jauzi teknologikoa harmonizatu edo moldatu, administrazioaren aurpegi guztiekin harremanetan jartzeko orduan denek teknika berak eta hizkera bera erabiltzen dituztela bermatzeko herritarrei. Eta, hala, jarraibideak ordena alfabetikoan azaldu zituen, eta azken hitza (gaztelaniazko *zanjar* hitza) administrazioak teknologiek eta datu pertsonalekin duen zor historikoa kitatzeari buruz aritzeko erabili zuen.

Jardunaldian kudeaketa eta pertsonen buruzko informazioarekin errespetuzkoak

diren esperientziak partekatu ziren, esate baterako, Open Data Euskadi, Toki Erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburua, Gipuzkoako zenbait udalekin izandako lankidetzak datu-babesaren legera egokitzeko, kudeaketa gardentasuna Bilboko Udalean udal estrategia gisa eta Ermuko Udalaren Zerbitzu Karta.

Aldizkari Ofizialen informazio publikoa eta datu pertsonalen babesa ere aztergai izan ziren. Aldizkari ofizialak jendaurreko informazio iturriak dira eta bilatzaileetan indexatzen direnez, Interneten geratzen dira betiko. Horregatik, aldizkarietan jasotzen den informazioak errespetuzkoa izan behar du eta datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea babestu behar du. Horrekin lotuta, 1845eko abenduaren 2ko Errege Aginduak dioena aipatu behar dugu: *“auzietako testigantzak atera eta inprimatu behar izanez gero, inprimatutako orritik ezabatu egin beharko dira magistratuen eta epaileen eta auzian parte hartu duten gainontzeko pertsonen izenak, eta horien orde, zenbakiak edo letrak ipini”*. Begien bistakoa da gardentasuna eta datu pertsonalak babesteko eskubidea uztartu egin behar direla, eta erronka ere nabaria da.

Azkenik, jardunaldiak kanpoko auditoriak egiteko aukera aztertu zuen, horrelako auditoriak datu pertsonalak babesteko kudeaketaren aurrerapen-tresna bezala.

Letrak eta datu
pertsonalen
babesa

Pribatua dena desagertzea, inork ez errespetatzea besteen intimitatea, pribatutasuna jakin mina xaxatzen duen ikuskizuna bihurtu izana, eta informazio industria bat ere egotea begirazaletasun unibertsal hori etengabe eta inolako mugarik gabe elikatuz, ankerkeriaren agerraldia baino ez da. Izan ere, esparru pribatua desagertzean gizatasunaren sorkuntza eta eginkizunik ederrenak hondatu eta zitaldu egiten baitira, esate baterako, itxurak gordetzearekin zer ikusia duen oro: erotismoa, maitasuna, ahalkea, manerak, sorkuntza artistikoa, sakratua den oro eta morala.

Mario Vargas Llosa, "Esparru pribatua eta esparru publikoa"

Hitz egin orduko, erratu gara.

Johann W. Goethe

Bi urte behar dira hitz egiten ikasteko eta hirurogei isiltzen ikasteko.

Ernest Hemingway

Zabaltzen den informazioaren zatirik handiena hain larriak ez diren ezbeharren arinkeriazko segida bat denean, lortzen duguna da beldurra zabaltzea munduan eta sekula ez da hain segurua izan.

Ignacio Villaverde, Konstituzio Zuzenbideko irakaslea

Informazioaren gizartean demokrazia garatzeko erraztasuna berez handiagoa da, bai eta herritarrak beregandik gertu dagoela eta berea ere badela sentitu dezan. Demokraziaren teoriko batzuek uste dute teknologia berriek gure garairako aproposagoak diren parte hartzeko moduak eskainiko dituztela, eta horrek guztiak on egingo diola bizitza publikoari. Nik neuk nekez sinisten dut demokraziak dituen arazoak teknikak konponduko dituenik. Aitzitik, gehiago sinisten dut informazioaren gizartearen onurak Kantek “arrazoiaren erabilera publikoa” deitzen duena garatzeko erabili beharko liratekeela. Horretarako, ez da nahikoa “komunikabideak” izatea. Nahitaezkoa da izaki ikasiek erabili ahal izatea komunikabide horiek.

Victoria Camps. Informazioaren Gizartea eta Herritarrak

“Gauza bat irensten bukatu ezinik zabiltzala, beste bat heltzen ari zaizu” dio Conellák, “informazioa etengabe sartzen ari da always on (beti piztuta) erako mundu honetan, eta horren ondorioz ezin duzu informazio bat bera ere sakon aztertu. Informazioa erruz badago, irakurketa ere interruptus da. Fenomenoa bere onetik atera egiten da denok informazio ekoizle bihurtzen garenean, eta informazioa ekoizteko tresnak hura antolatzeke eta bilatzeko tresnak baino hobeak direnean. Denok dakigu testu prozesadoreak erabiltzen, baina gutxik dakite kalitatezko informazioa zentzuz bilatzen”.

Cornellák dioenez “Oso ondo hautatu behar dira informazio iturriak. Eguneko unerik onenak kalitatezko informazioari eskaini. Halakoa zenbat eta gehiago erabili, orduan eta hobeto prestatuta egongo zara parean duzuna zabor hutsa dela ikusteko. Informazio onak, garrantzitsuak, desinfoxikatu egiten du”.

Sergio Fanjul, El País.com

